

Egoera ekonomikoa eta Merkatuak ASTEKO LABURPENA

2017ko apirilaren 3tik apirilaren 7rako astea

INGURU MAKROA:


- ASTEKO DATUEN PODIUMA
- KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

ASTE HONETAN MERKATUETAN

INGURU MAKROA

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EUROPA: INDUSTRIA-EKOIZPENA



Datuaren analisia

Alemaniako industria-ekoizpena, aurreko hilarekin alderatuta, % 2,2 igo zen otsailean (aurreikusitakoa -% 0,2), eta urte arteko tasa % 2,5ean kokatu zen. Osagaiei begiratuta, eraikuntzaren sektorea nabarmendu behar da, % 13,6ko hobekuntzarekin hilean. Espainian, ordea, aurreko hilarekin alderatuta, industria-ekoizpenak % 0,2ko jaitsiera izan zuen otsailean. Hala ere, urte arteko hazkundea sendoa da oraindik, % 2,5eko mailan baitago. Alderdirik negatiboenak Frantzia eta Erresuma Batuen hileko datu apalak izan ziren (-% 1,56 eta -% 0,7 hurrenez hurren). Urte artekoan, Frantziaren kasuan hazkunde-tasa berriro negatiboa dela nabarmendu behar da (-% 0,7).


Adierazlearen azalpena

Industria-ekoizpenaren indizeak herrialde bateko industria-sektorearen adierazgarri den enpresa multzo baten ekoizpenean emandako aldaketak neurtzen ditu. Hilero enpresei industria-sektorearen egoerari buruz egiten zaizkien galdetegiaren erantzunetatik lortzen dira datuak. Ekonomia baten ekoizpen-maila nola aldatzen den jakitea oso garrantzitsua da hazkundearen analisia egiteko.

INGURU MAKROA

ASTEKO DATUEN PODIUMA

AEB: ENPLEGUAREN TXOSTENA



Datuaren analisia

AEBetan, Lan Sailaren txostenak 98.000 enplegu berri sortu direla erakutsi zuen, analistek espero zuten mailatik oso behera, ia bikoitza, 180.000, aurreikusi baitzuten. Ekonomisten arabera, Estatu Batuetako ipar-ekialdea eta erdi-mendebaldea jo zuen martxoko elur-ekaitz gogorrek enpleguaren sorreran eragina izan zuen. Bestalde, langabezia-tasak bi hamarren egin zuen behera, % 4,5eraino, otsaileko % 4,7aren aldean. Sektorez sektore, pribatuak 89.000 enplegu sortu zituen, aurreko hileko 221.000 enpleguen aldean. Sektore publikoak, aldiz, 9.000 enplegu sortu zituen, otsailean baino 1.000 gutxiago. Orduko batez besteko soldataren adierazleak % 0,2 besterik ez zuen egin gora otsailetik (hileko datua).

Adierazlearen azalpena

Enplegu-txostena hilerok argitaratzen du Estatu Batuetako Lan Sailak. Estatu Batuetako lan-merkatuaren egoerari buruzko txosten osatu bat da, eta hainbat datu aurki daitezke bertan; horien artean nabarmenenak: enpleguaren sorrera (nekazaritza-sektorea kanpo utzita), langabezia-tasa eta soldaten bilakaera. Txosten honi esker, Estatu Batuetako ekonomiaren bilakaeraren gaineko pronostiko bat egin daiteke. Lan-merkatua hazten ari bada, herritarren errenta erabilgarria handitu egiten da. Beraz, kontsumitzailearen gastua igo daiteke, BPGd-aren igoera bat eragingo lukeena, eta, ondorioz, herrialdearen ekonomiaren hobekuntza.

INGURU MAKROA

ASTEKO DATUEN PODIUMA

AEB: MANUFAKTUREN ETA ZERBITZUEN ISM



Datuaren analisia

Manufakturen ISMa pixka bat moteldu zen martxoan, 57,7tik 57,2ra, espero zenaren mailan, baina oraindik nahiko maila altuetan. Osagaiei begirata, ordaindutako prezioen eta enpleguaren igoerak nabarmendu behar dira alde positiboan, eta ekoizpenaren eta eskari berrien jaitsierak alde negatiboan. Zerbitzuen ISMa ere 57,6tik 55,2ra jaitsi zen, espero zen 57a baino emaitza okerragoa. Osagaiei begirata, gehienek okerrera egin zuten, batez ere negozioaren gaineko ikuspegiak, ordaindutako prezioak, eskaera berriak eta enpleguak.

Adierazlearen azalpena

ISM zerbitzuen/manufaktura-indizeak konpainia amerikar nagusietako erosketen arduradunei hilero egiten zaien inkesta bat du oinarri. Bertan, manufakturen eta zerbitzuen sektorearen egoeren inguruan galdetzen zaie. Fabrikazioaren/zerbitzuen sektorearen aldean ekonomiaren egoera zein den neurtzeko balio du. Adierazle ekonomiko aurreratu bat da, hau da, beste adierazle batzuek etorkizunean izango duten bilakaera aurreratzeko balio digu; esate baterako, BPGd-arena. Emandako datua 50etik gorakoa bada, ekonomia hazten ari dela esan nahi du; hortik beherakoa bada, ordea, ekonomia uzkuratzen ari den seinale.

INGURU MAKROA

KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

Data	Eremua	Adierazlea	Aurreikus
04/10	Japonia	BoP oinarrizko merkataritza balantza	Â¥981.7b
04/10	Frantzia	Bank of France enp sentimentua	103
04/10	Italia	Hileko industria-ekoizpena	% 1.4
04/10	Eurogunea	Sentix inbertsiogilearen konfiantza	21.0
04/11	Erresuma Batua	Hileko KPIa	% 0.3
04/11	Erresuma Batua	Urte arteko KPIa	% 2.3
04/11	Eurogunea	Hileko SA industria-ekoizpena	% 0.1
04/11	Alemania	ZEW oraingo egoerari buruzko inkesta	77.5
04/11	Eurogunea	ZEW inkestaren aukerak	--
04/11	Alemania	ZEW inkestaren aukerak	14.0
04/12	Txina	Urte arteko KPIa	% 1.0
04/12	Alemania	MoM handizkako prezioen indizea	--
04/12	Espainia	Hileko KPIa	% 0.0
04/12	Espainia	Urte arteko KPIa	% 2.3
04/12	Erresuma Batua	ILO langabezia-tasa 3 hilabete	% 4.7
04/12	Estatu Batuak	MBA Hipoteken eskaria	--
04/13	Alemania	Hileko KPIa	% 0.2
04/13	Frantzia	Hileko KPIa	% 0.6
04/13	Estatu Batuak	Hasierako langabezia-eskaerak	245k
04/13	Estatu Batuak	Sentimendua Michiganeko Unibertsitatea	96.8
04/13	Estatu Batuak	Oraingo egoera Mich. U.	--
04/13	Estatu Batuak	Aurreikuspenak Mich. U.	--
04/13	Txina	Balantza komertziala	\$12.50b
04/14	Japonia	Hileko industria-ekoizpena	--
04/14	Estatu Batuak	Hileko KPIa	% 0.0
04/14	Estatu Batuak	Hileko txikizkako salmenta aurreratuak	% 0.0

ASTE HONETAN MERKATUETAN

BURTSAK:

Burtsen portaera mistoa izan da aste honetan. Europan, portaera desberdinak eman dira; Eurostoxx indizeak, esate baterako, behera egin du pixka bat, baina beste batzuk, Ibexak kasu, aurrera egin dute. AEBetako plaza nagusiek galera txikiekin itxi zuten. Maila orokorrean, petrolio gordinaren prezioaren gorakada burtsen pizgarri nagusietako bat izan zen; hala ere, ezin izan zituzten galera txikiak saihestu, gertaera makro eta politikoen ondorioz. Asteazkenean, FEDen azken akten argitalpenaren ondoren zenbait kidek akzioen prezioak erlatiboki altuak direla esan eta gero, eta zerga-erreforma uste baino gehiago luzatu daitekeela aditzera emateko bozeramaileak egin zituen adierazpenen ondorioz, adierazle nagusiek behera egin zuten. Ostiralean, AEBek Siria bonbardatu ondoren, inbertsiogileak babes bila joan ziren, eta, orduak aurrera egin ahala, hasierako eragina, hein batean, apaldu bazen ere, burtsa nagusiek galerekin amaitu zuten astea. Herrialde gorakorren astea, oro har, ona izan zen. Asian, Japoniak atzera egin zuen, Yenaren sendotasunak kaltetuta.

ERRENTA FINKOA:

Europako zor publikoaren merkatuan, errentagarritasunek behera egin dute aste honetan, batez ere core zorrean eta, hein txikiago batean, periferian. Alemaniako zorraren errentagarritasunek atzera egin zuten tarte guztietan, eta 10 urterako tasak 10 op-ren galerarekin itxi zuen astea, % 0,23raino. Espainiako bonuaren errentagarritasuna ere 5 op jaitsi zen, % 1,61eraino. AEBetan errentagarritasunek ia ez zuten aldaketarik izan. Kalitate txarragoko kredituaren diferentziala pixka bat hobetu zen.

DIBISAK/LEHENGAIK:

Dibisetan, mugimendurik handiena ostiralean gertatu zen, Siriaren bonbardaketaren ondoren, Yena indartu zenean eta babes-moneta lana bete zuenean; astearen amaieran 117,8¥/€ mailan kokatu zen. Dolarrak ere balioa handitu zuen, eta 1,0599\$/€ mailan itxi zuen. Lehengaien merkatuan, petrolio gordinaren prezioaren igoera nabarmendu behar da. AEBetako inbentarioen datuak espero zirenak baino handiagoak izan baziren ere, Ipar Itsasoko erazte-eremu baten itxieraren albisteak eta ostiraleko bonbardaketak kotizazioa bultzatu zuten, eta +% 2,9 egin zuen gora aste osoan, 54,24\$/upel mailaraino. Urreak ere aurrera egin zuen, 1.254\$/ontza mailaraino.

INDICES	PRECIO	%Variación Semanal	% Var 2017
MSCI WORLD (Local)	1.427,57	-0,26	4,64
IBEX 35	10.529,00	0,63	12,58
DJ EURO STOXX 50	3.495,80	-0,15	6,24
DJ STOXX 50	3.163,46	0,09	5,08
FTSE	7.349,37	0,36	2,89
S&P 500	2.355,54	-0,30	5,21
Dow Jones	20.656,10	-0,03	4,52
NASDAQ	5.877,81	-0,57	9,19
NIKKEI 225	18.664,63	-1,29	-2,35
MSCI EMERGENTES (Lo	51.563,03	0,69	8,21
MEXBOL	49.343,64	1,65	8,11
BOVESPA	64.593,11	-0,60	7,25
SHANGHAI	3.441,76	1,99	5,91
Rusia Rts Moscú	1.113,45	-0,03	-3,37

Tipos Gobiernos	Nivel	Variación Semanal	Var 2017
ALEMANIA 2 AÑOS	-0,81	-0,07	-0,04
ESPAÑA 2 AÑOS	-0,21	-0,05	0,07
EE.UU 2 AÑOS	1,29	0,03	0,10
ALEMANIA 10 AÑOS	0,23	-0,10	0,02
ESPAÑA 10 AÑOS	1,61	-0,05	0,23
EE.UU. 10 AÑOS	2,38	-0,01	-0,06
ALEMANIA 30 AÑOS	1,00	-0,11	0,06
ESPAÑA 30 AÑOS	2,87	-0,04	0,25
EE.UU. 30 AÑOS	3,01	0,00	-0,06

Spread de credito (pb)

MARKIT ITRX EUROPE 06/22	74,29	0,39	2,25
MARKIT ITRX EUR XOVER 06/22	283,69	-6,45	-5,01

Divisas	Nivel	%Variación Semanal	% Var 2017
Dólar / Euro	1,06	-0,92	0,49
Yen / Euro	117,80	-1,07	-4,26
Libra/ Euro	0,86	0,33	0,15

Materia Primas	Nivel	%Variación Semanal	% Var 2017
Petroleo (Brendt)	54,24	2,90	-2,11
Oro	1.254,45	0,41	8,87

Kutxabank Gestión SGIIC SAUk prestatu du agiri hau, eta horretarako, fidagarriak diren informazio-iturriak erabili ditu. Hala ere, ezin du ziurtatu bertan jasotako informazioa eta iritziak erabat zehatzak, zuzenak eta osoak direnik, eta ez du bere gain hartzen horren gaineko inolako erantzukizunik. Agiri honetan agertzen diren informazio eta iritziak edonoiz aldatu daitezke, aurretik horren berri eman beharrik gabe. Kutxabank Gestión SGIIC SAUk ez du agiri honen eta bere edukien erabilerak sortu ditzakeen kalteen gaineko erantzukizunik hartzen. Finantza-merkatuetan eragiketak egiteak arrisku handiak sortu ditzake, eta posizioa etengabe zaindu behar da. Txosten hau ez da eskaintza bat ez eta finantza-aktiboak erosi edo saltzeko eskaera bat ere. Agiri hau zu informatzeko besterik ez da, eta hirugarrenek ezin dute berregin edo banatu. Era berean, ezin da, inolako aitzakiapean, osorik edo zati bat argitaratu.